



# Jakob Georg Gapp

Mikel Arizaleta

Itzulpena: Hori-Hori

## Santiago Gapp

1897ko uztailaren 26an jaio zen Austriako Tiroleko Wattens herri txiki, lasai eta ederrean. Gaur egun 3.500 biztanle inguru ditu.

Herriko eliza zurian medailoi bat dago Jakob Gappen irudiarekin eta inskripzio honekin: *P. Jakob Gapp, SM. Geb. 26 juli 1897 in Wattens, am 5.4.1930 Priesterweihe, hingerichtet am 13.8.1943 in Berlin. Sein Leben war Zeugnis für den Glauben, sein Tod ist Opfer und Vorbild* (Jakob Gapp aita, marianista, 1897ko uztailaren 26an Wattensen jaioa, 1930-04-05ean apaiz ordenatua eta 1943-08-13an Berlinen exekutatua. Beraren bizitza fedearen testigantza izan zen, bere heriotza sakrifizioarena eta ereduarena). Aita Santu Joan Paulo II.ak dohatsu aitortu zuen 1996ko azaroaren 24an. Beraren memoria liturgikoa abuztuaren 13an ospatzen da.

Martin Gapp eta Antonia Wach senar-emazteen zazpigarren semea izan zen; familia txiroa eta oso kristaua zen. Santiago egunaren biharamunean jaio zenez, haren izena ipini zioten. Lehen hezkuntza eskola publikoan ikasi zuen; bigarren hezkuntza, aldis, fraide-ikastetxe batean. Ikasle saiatua izan zen. Hamazazpi urte zituela, ikasteari utzi eta Italiaren aurkako gerrara joan zen boluntario. Zauritu eta 1918an txekiarrek gatibu egin zuten. Hamar hilabete eman zituen preso. 1919ko abuztuaren 18an askatu zuten. Marianna Oberauer ilobak, arrebak nagusiaren alabak, zera kontatzen zuen: *“Gerratik eta gatibualditik itzuli zenean, Jakobek Jaungoikoaren existentzia ukatzen zuen, eta amak negar asko egiten zuen horregatik”*. Arrebak nagusia eta anaia bat Alderdi Nazikoak izan ziren geroago eta ez ziren Jakob Gappekin ondo konpondu.

Gerratik itzuli zenean, *Kriegsmatura* egin zuen, “gerrako batxilergo” erraz bat, solda-

duen eta gudari ohien eskuragai jartzen zena. 23 urte zituen eta unibertsitateko ikasketak egin nahi zituen. Pobreziak, ordea, orpoz orpo jarraitzen zion, eta aholkatu zioten fraide marianista eginez gero doan ikasi ahal izango zuela. Luis Gafall parrokoak animatu zuen. Gappek gomendio-gutuna bidali zion Mariaren Lagundiaren Freistadt-eko probintzialari eta hark honela aurkeztu zuen bere burua, soil eta lau: *“Hemen nago. Sozialista naiz eta apaiza izan nahi dut. Horretarako balio ez badut, esadazue lehenbailehen eta etxera joango naiz”*. Teologia ikasi zuen Friburgon (Suitza) eta 1930eko apirilaren 5ean Friburgoko katedralean apaiztu zuen Lausana, Geneva eta Friburgoko apezpiku Mario Besson monsinoreak. Gappek 33 urte zituen. Friburgon zegoela, nagusiak, Neubert aitak, honako hau ohartarazi zion:

*“Kontuz ibili zeure sentiberatasunarekin. Grina apostoliko handia daukazu, baina zuhurtziaz jokatu behar duzu. Amesgile samarra zara batzuetan, eta egoskorregia beste zenbaitetan. Begiekin baino gehiago irudimenarekin ikusteko arriskua daukazu. Aldera itzazu zeure iritziak; ondo etorriko zaizu”*. Jakob Gapp ez zen beti konprenitua sentitu; batzuen ustetan puztu egiten zuen txiroen aldeko jarrera egoskorra, eta nazionalsozialismoaren aurkako salaketa ere bai. 1938ko martxoaren 12an Reicharen tropak Austrian sartu ziren. Eta Gappek honako hau erantzun zien horren kontrako jarrera sutsuaz gaizki esaten zutenei: *“Ba, ez nazazu aintzakotzat hartu. Argi eta garbi hitz egiten jarraituko dut. Eta traba egiten badut, beste komunitate batera aldatzeko eskatuko dut... Ez dut sekula esbastikarik jarriko soinean!”*. Geroago esan zuen Marien-Institututik, ordenaren zentroetik, bota egin zutela. Berlinen, hauxe esango zuen epaitzen zuten auzitegian: *“... Ba-*

*tez ere Alfred Rosebergen XX. mendeko mitoa irakurri ondoren erabat konbentzituta nongoen nazionalsozialismoa eta fede katolikoa guztiz bateraezinak zirela”*.

Geroago, erlijioso guztiak kanporatu eta erlijio eskolak bertan behera utziko zituzten.

## Ihesaldia

1938tik aurrera nazien jazarpena ondo-ondotik sentitu zuen Gappek. Bizitokia aldatu eta ihes egin zuen. 1939ko urtarrilaren 20an Cannesera iritsi zen trenez Milanetik, eta gero Bordelera joan zen. *Père Jacques* bihurtu zen. Baina luze gabe gauzaez sentitzen hasi zen; egiteko gutxi zeukan eta frantsesek alemaniarrez adierazten zituzten iritziek mindu egiten zuten. Alemaniartzat zuen bere burua eta bere herria maite zuen, baina ez nazien erara; frantsesek ez zuten ulertzen: *“Austriar alemana naiz!”*. Bordeleko komunitateko buruak idatzi zuen: *“Norbaitek Alemaniaren aurkako hitzik esaten badu, hain haserretzen da asko ezen jantokian Alemaniari buruz hitz egitea debekatu behar izan dudana”*. Denak ziren Gappen haserrealdien beldur. Aldi hartan ez zen erreza beraren solidaritate pangermanikoa ulertzea.

Martxoaren 6an, Gappek Jungi jakinarazi zion Alemaniako kontsulatuaren bisa lortu zuela eta Bordelen zegoen Espainiako kontsulatuan izapideak egiten ari zela. Gestapok bazekien non zegoen. Berlingo epailetan konatuak eskatuko zizkioten Pazko egunean Bordelen emandako sermoi batengatik. Bordeleko kapera hartan zelatari bat zegoen.

Jakob, Santiago bihurtuta, Hendaiara eta Donostiara iritsi zen 1939ko maiatzaren 23an. Maiatzaren 21ean, Francok berak, Espainiak Condor Legioa agurtu zuen Leongo Virgen del

*“Liebe Teresita: Dagoeneko guztiok batera gaude Lekeitio ederrean, zu ere laster etortzea espero dugu. Otto eta biok buru belarri ari gara lanean. Ahal izanez gero, ekarri liburuak, agian behar izango ditugu eta. Pilotarik edo antzekorik badaukazu, hori ere ekarri, horrela, gure jolasetan erabili ahal izango dugu”*

Camino aireportuan. “Baina, non sartu naiz?” pentsatu zuen Gappek. Harrera ona egin zioten. “Eskolak urrian hastea espero dut” idatzi zion Jung aitari. Gordejuela aitak, Friburgen ezagutu zuenak, Cádizera joateko gonbita luzatu zion, bertako ikastetxeko zuzendaria baitzen. Baina ez zuen eguzkia ondo jasaten, ez eta eltxoak ez iskanbila ere. Eta, beti bezala, herrimina zuen. “Errazago jasango nuke tortura aberritik, aberri gurutzefikatutik, urrun bizitzera baino”, idatzi zuen. 1939ko irailean, Donostiako ikastetxe batean lan egiten hasi zen. 1939ko abenduaren 30ean, bere lagun, konfidente eta nagusi Jung fraideari zera kontatu zion: Espainian emandako lehenengo egunak oso gogorak izan zirela eta ez zuela eskolako hizkuntza menperatzen. Halaber, Ameriketara joateaz, ohiturez, nostalgiaraz eta txarto sentiarazten zuten inguruabar bitxiez hitz egin zion. Bordelen, Cádizen, Donostian gertatzen zitzaion gauza bera gertatzen zitzaion...

Gapp oso eraginerraza eta psikologikoki ahula zen; hala eta guztiz ere, irmoa zen doktrina katolikoan eta fedearen defentsan, eta lasaia, epaien eta hiltzeko asmoarekin jarraika zeukan Gestaporen itaunketetan. Deigarria zen zein gogor astintzen zuen herrimik (alemanez Heimweh) Bordelen, Cádizen, Donostian, Lekeitioan, Valentzian... Gauza bera gertatzen zitzaion beti: hasieran, egoera berri baten aurrean, gogo izugarriak izaten zituen, gogoberotu egiten zen; hastapenak beti izaten ziren optimistak, baina gero etengabeko dezepzioa heltzen zitzaion eta atsekabetuta sentitzen zen bere buruarekin eta egoerarekin; tokiarekin bat ez zetorrela pentsatzen



Geheime  
Staatspolizei  
GESTAPO

zuen, beste lan batekin amesten zuen, ikasleak menderatzen ez zituen irakasle gisa irtenbide bat bilatzeko irrikaz egoten zen; sarritan, Mariaren Lagunditik urruntzeko tentazioa ere izaten zuen, harekin atsekabetuta zegoen, baina, aldi berean, lagundiari oso lotuta zegoela sentitzen zuen.

Gapp aitak, Donostian, Santa Maria ikastetxean gertatutako anekdota bat kontatu zuen Berlingo epaien aurrean: “Gertaera bat gogoratzen dut: egun batean, ikasle bat, nerabe bat, gurutze gamatuarekin agertu zen. Hurbildu eta galdetu nion: “Badakizu zer esan nahi duen horrek?” Erantzun nahi ez zuela konturatu nintzenez, esan nion nazionalsozialismoak are izen kristauak ere ezabatu nahi zituela. Gero, kristau katolikoa ote zen galdetu nion; galdera horrekin fede kristaua eta nazismoa bateraezinez zirela argitu nahi izan nion. Ikasleak irribarre egin zuen ezer esan gabe, baina orduan jabetu nintzen ikasgela hartako ikasle guztiek nik esandakoa ulertu zutela eta nazionalsozialismoari zegokionez nirekin ados zeudela”.

## Lekeitio

Santa Maria ikastetxeak Nerecán inprentari enkargatu ohi zizkion inprimaki guztiak. Inprenta hartan austriar batek lan egiten zuela jakin zuen Gappek. A ze poza hartu zuen! Eta hara joan zen, Nerecán arte grafikoen offset tailerrak zuzentzera etorritako Othmar Pisarik agurtzera. María del Rosario Villarrekin ezkondu zegoen. Pisariken bidez Arambarri Stoehr familia ezagutu zuen.

1922an, Lekeitio aterpea eskaini zion Zita enperatrizarari Urribarren jauregian, 30 urte zituenean alargun eta zazpi seme-alabarekin geratu baitzen. Bertan bizi izan zen 1929ra arte. Enperatrizarik dontzeila gazte bat ekarri zuen: Albina Stoehr; gero Ignacio Arambarri lekeitiarrekin ezkondu zen. Bi seme-alaba izan zituzten: María Teresa Adelaida, 1927an jaio zena, eta Otto Ignacio, 1929an jaio zena. Azken horrek Habsburgoko Otto erregea izan zuen aitabitxi, eta

Zita enperatriza amabitxi. 1929an, Arambarri Stoehr familia Lekeitioan gelditu zen; Ignazio udaleko kontularia izan zen.

1940. urtearen hasieran, Santiago Gappek familia hura ezagutu zuen; Teresitak 13 zituen eta eta Ottok 10 urte. Lagun egin ziren. Albinak Ottoren gaineko kezka azaldu zizkion Gappi: ez zebilen ondo ikasketetan. Orduan, Gappek haurren irakasle pribatu gisa lan egitea pentsatu zuen. Ederra izango litzateke familian bizitzea! Gappek bere lagun eta nagusi Jung fraidearekin hitz egin zuen: Austrian eta Espainian Mariaren Lagundiak huts egin ziola esan zion. Arambarri familiarekin Lekeitioa bizitzera joan nahi zuela adierazi zion, Teresitari eta Ottori aleman eskolak emanez bizimodua ateratzeko: “Aita Onaren baimen berekin Lekeitioa joan ahalko nintzateke, nagusiek ondo baino hobeto ezagutzen dituzten nire zailtasun bereziak ikusita? Baimena Austriara itzuli arte baino ez nuke beharko”.

Hilabete batzuetarako baimena eman zioten; gero Erroman eskatu behar izan zuen aldi baterako esklaustrazio baten bidez luzatu zen. Lekeitioan familia-bizitza bat izatea zuen amets Gappek.

1940ko apirilaren 7an gaztelaniaz idatzi zion Arambarri senar-emazteei: “Aita-ama maiteak: Barkatu etxeko modura hitz egitea; izan ere, zuen familiako kide izatea espero dut... Zuek nahiz zuen seme-alabak osasunez ondo ibiltzea eta udaberriak dakarren edertasunaz gozatzen aritzea espero dut. Ni bezala ikastaroa noiz amaitu zain izango zarete [...] Gorputzez hemen nago, baina espiritualki edo bihotzarekin Lekeitioan...”.

Ekainaren amaieran, ikasturtea amaitu zenean, Santiago aita Lekeitioa joan zen Arambarritarekin bizitzera. Teresitari, Zumaiako Karmeldarren ikastetxean barneko ikasle gisa zebilenari, postal bat idatzi zion:

*“Liebe Teresita: Dagoeneko guztiok batera gaude Lekeitio ederrean, zu ere laster etortzea espero dugu. Otto eta biok buru belarri ari gara lanean. Ahal izanez gero, ekarri liburuak, agian behar izango ditugu eta. Pilotarik edo antzekorik badaukazu, hori ere ekarri, horrela, gure jolasetan erabili ahal izango dugu”.*

Marianistentzat ere Lekeitio harrera-toki izan zen. Frantziako erlijiosoak 1903an heldu ziren, aberritik kanporatu ostean. Nobiziotza batek harrera egin zion Frantziako gazteei; erlijioso edadetu askok ere Lekeitio hartu zuten babesa. Hilerriko panteoi batek erbestean

hil ziren marianisten gorpuzkiak eta oroipena gordetzen ditu. 1940an, Gapp Lekeitiora heldu zenean, eraikin hori mesedetakoena zen, zeinek ikastetxe txiki bat jarri zuten bertan. Gapp bere bi ikasleen denbora antolatzen zuen: aleman-ikasketak, hondartza-jolasak, ibilaldiak Santa Katalinara, itsasargira... Gapp Ottorekin gogorregia zela uste zuen Albinak.

Ikasturtea heltzeaz zegoela, Gapp ez zuen Arambarri familia xumearentzako karga izan nahi. Mesedetakoei eskaini zizkien bere zerbitzuak. Zuzendariak, David Biain aitak, adeitasunez hartu zuen, eta Gapp ingeleseko eta frantseseko eskolen ardura hartu zuen.

Gapp astean 22 orduz ematen zituen eskolak. Ikasgela bakoitzean bederatziz edo hamar ikasle egoten ziren. Baina berriro ere nostalgia sentitzen hasi zen. Albinarekin, haurren amarekin, gaizki-ulertuak izaten zituen, haurrekin gogorregia zela zihoen eta. Etsipena itzuli zen.



J.G. Gappék Zakari Garamendiri oparitutako liburua

David Biain aitak poltsiko-agenda batean eguneroko kontuak idazteko ohitura zeukan, eta lau ohar zituen Gappen inguruan:

1940ko urriaren 2a, asteazkena: Ikasturtea hasi da. Santiago Gapp aita, marianista, frantseseko eta ingeleseko eskolak ematera etorri da.

1940ko abenduaren 31, asteartea: Santiago Gapp aitak bere altzari guztiak ikastetxera

ekarri ditu bertan bizitzeko. Urtea hotz handiarekin amaitu dugu.

1941eko apirilaren 14a, Pazko astelehena: Santiago Gapp aita Ignacio Arambarri jaunarekin joan da Elantxobera, eta kotxez itzuli dira.

1941eko ekainaren 9a, astelehena: Santiago Gapp aitak alde egingo du Donostiako bere lagundira itzultzeko.

Zergatik alde egin zuen? Beti gertatzen zitzaion gauza bera: zeuzkan ilusioak ez zetozen bat errealitatearekin, herrimina sentitzen zuen, atsekabetasuna... 1940ko uztailaren 2an Olga lehengusinari idatzi zion: *“Oso ondo nago familia honekin”*. Abuztuaren erdialdean anaia Joseri idatzi zion: *“aberrira itzultzeko gogo itzelak ditut”*. Urrian, parrokia-lanak egin nahi litzukeela idatzi zion Olgari, baina Lekeitio ez zen posible dagoeneko 12 apaiz zeudelako; Brasilerara joatea pentsatzen zuen...

Arambarritarren etxean deserero sentitzen hasi zen; Albinak umeak lainenez beteak zituela uste zuen. Familia lagunkiro agurtu eta abenduaren 31n mesedetakoan ikastetxera bizitzera joan zen. Bertan ere ez zen gustura sentitzen eta lagundi marianisten, bere ordenaren, espiritua faltan botatzen zuen. 1941eko ekainaren 9an Donostiako komunitatera itzuli zen.

## Valentzia

1941eko irailaren hasieran Marcos Gordejuela aitak, marianisten probintzialak, hauxe esan zion Gappi: *“Hara, aita, zu Valentziara bidaltzea pentsatu dut. Ziur naiz han gustura sentituko zarela. Nuestra señora del Pilar ikastetxea sortu berri den ikastetxe txiki bat da...”*. Valentziarako bidean Zaragozako Pilarko Ama Birjinaren basilikatik igaro zen. Olgari idatzi zion: *“Zaragoza hiri handia da. Bertan lasai erosi ahal izan dut ogia, ederra eta zuria; beste toki batzuetan ia topatzerik ere ez dago”*. 1941 eskasia handiko urtea izan zen.

1941eko irailaren 14an iritsi zen Valentziara. Hurrengo egunean eskolak hasi ziren. Batxilergoko lehenengo eta hirugarren mailan latin eskolak ematen zituen, hirugarren eta laugarren mailan alemana, eta laugarren mailan frantsesa eta erlijioa. Olga lehengusinari idatzi zion: *“Oso lanpetuta nabil, baina oso pozik nago, jendea oso zintzoa baita. Hau ez da Tiroi, baina espainiarrak oso pertsona onak eta atseginak dira. Nire helbidea: Caballeros 39, Valencia del Cid, Espainia”*.



Jakob Gapp-en oroipenerako kartela. Wattens (Austria)

Apirilean, aberriarekiko nostalgiak berriro jo zuen Gapp. Txarto sentitzen zen, Alemaniatik albiste txarrak zetozen, Hitler... Maiatzean oso txarto sentitzen zen, hezkuntza-lanetan porrot egin zuen, desberdintasun sozialek min ematen zioten, ez zeukan haurren gaineko autoritaterik... Hainbat irtenbide eskaini zizkion: Ingalaterrara joatea, Austriara bueltatzea, bere esku parrokia bat utziko zuen apezpikuren bat bilatzea.

Agustín Lange alemaniar erlijiosoaren (geroago, 1996an, Gestapoko kidea izan zela jakingo zen); Gappék Valentzian ezagutu zuen eta Austriara itzultzeko proposatu zion. Maiatzean, Espainian egoteko baimena amaitu zitzaion eta arazorik gabe berritu zuen. Valentziako kontsulatu ingelesean Ingalaterrarako bisa eskatzeko aukera haztatu zuen. Bihotza zabaldu eta nazionalsozialismoaren aurka hitz egin zion Langeri, baita Ingalaterrara edo AE-Betara joateko desirari buruz ere. Bisatuaren eskaerak ezezkoa jaso zuen.

Valentziako kolonia alemaniarra hilean behin, igandetan, biltzen zen latinezko meza alemanezko homiliarekin entzuteko Cirilo Amorós kaleko Hermanas Teresianas ikastetxean. Santiago aitak hainbat alditan eman zuen meza eta nazionalsozialismoari buruz uste zuena adierazi zuen: doktrina katolikorekin bateraezina zela. 1942ko apirilaren 12an, arretera erakarri zuen homilia bat eman zuen:

“Alemaniarrek Hitlerren bideari jarraitzen badiote, afrikarrak etorri beharko dira Alemania kristautzera”. Gestaporen espioiek gogoan hartu zituzten hitz horiek, Berlingo epaiketari agertu baitziren. Valentzian, Gappen bizitzan pertsona bitxiak agertzen hasi ziren: 1942ko uztailean, bi emakume judu aurkeztu zitzaizkion, katolikoa bihurtu nahi zutelaren esanez, eta eskolapena eskatu zioten. Ez dakigu nortzuk ziren, baina arazoak ekarri zituzten eta ez ziren bataiatu; Lange aita agertu zen, eta bera bisitatzera joan zen egun batean Martin Mendelssohn delako gizon bat ezagutu zuen, 1935ean Berlinetik ihes egindako judua zela zioena eta bere familiarekin batera katolizismora bihurtu nahi zuena; Herman Tretter delako gizon bat ezagutu zuen... Gestapoko agenteak ote? Azken bi horiek “kasualitatez” topatu zituen Lange aitaren etxean. Hark Gapp konbentzitu zuen gizon horietaz arduratu zedin. Haiexek eraman zuten gero Hendaia-ko satartera. Fraideek muturra okertzen zuten konpainia horiek ikusita eta kontuz ibiltzeko esaten zioten. Egia esan, bertan gertatu eta hitz egindakoa Berlingo itaunketan aipatu zen.

1942ko ekainaren hasieran, Alemaniako kontsulatura joatea erabaki zuen, pasaporteak berritzeko eta Alemaniara itzultzeko baimena eskatzeko. Inozo halakoa! 1942ko irailaren hasieran esan zuen: “kontsularen idazkariak deitu zidan, Alemaniara itzuliko nintzela baieztatzeko hitzordu bat zehazteko. Momentuz ideia hori alde batera utzita nuela erantzun nion. Nire asmoa Tarragona probintziako parrokiak batez arduratzea zen”. Reicharen polizia sekretua zelatan zeukan, eta bere inguruan armiamasare bat ehuntzen hasi zen. Zergatik setatu zen Gestapo Gappekin? Zaila da azalpenak aurkitzea. Kontrolatzeko grinagatik? Traidorea izateagatik? Gappek espainiar estatuan idatzi zuen azken gutuna 1942ko maiatzaren 4koa da. Anaia Joseri idatzi zion, sarritan egiten zuen bezala, begirunea galtzen zioten ikasleekin zituen arazoei buruz eta aberriarekiko sentitzen uen herrimari buruz.

1942ko irailaren 15ean ikasturtea hasi zen; irailaren 29an fraideei baieztatu zion Tortosa-ko parrokiara batera joateko izapideak egiten ari zela. Urriaren denbora asko igaro zuen Agustín Lange eta ustezko bi juduekin. Ihes egingo zuen beldur ziren? Gerra amaitutakoan aliatuak Agustín Lange aitaren bila hasi ziren Gestapoko agenteak izateagatik. Gappek ez zeukan horren susmorik.



Heinrich Himmler eta Adolf Hitler

1942ko azaroaren 4an nagusiei jakinarazi zien lagunek iparraldetik egun batzuk igarotzera gonbidatu zutela Pilarko basilika bisitatzera joateko. Hilaren bostean, goizean goiz, Herman Tretter agertu zitzaion bila. Eguerdi partean gizon bat joan zen komentura: Gapp-pek logelan zeuzkan traje bat eta kutxa bat bidaltzeko eskatu ziola zioen. Berlinen erregistratuta amaitu zuen denak. Atzemaileek maltzurkeriaz jokatzeko zuten beti. Beatifikazioaren kausaren kontalariak, Ambrosio Eszer aitak, hauxe arrazoitu zuen: “Gappen moduko izaera duten pertsonengan ama-hizkuntza entzute hutsak gizon baten bihozberatasunean sinesteko joera eragin dezake, nahiz eta arrazoiak zuhurtziaz jokatzera bultzatu”. Zaragozatik igaro zen, Lekeitiotik igaroko al zen Donostia bidean? Irun eta Hendaia arteko muga gurutzatu eta atxilotu egin zuten. Lagunek engainatu zuten, bereziki Martín Tretterek, Gapp bidaian joatera gonbidatu eta bidean lagundu zuenak.

Donostiako lagundiko aita marianistak egun horietan idatzitako gutun bat dago; hauxe zioen:

“Datu hauen berri Andre Maria Birjinaren bihotz guztiz garbiko aita oblatu batek eman zidan, Hernaniko elkarteko kide zenak. Hark iturri seguru baten eskutik jakin zuen, Espainiara etorri zen alemaniar batengatik, hain zuzen ere. Hala ere, isil-mandatariaren erreferentzia pertsonalen sekretua beretzat gorde zuen.

Erlijosari zera jakinarazi zioten: Gapp aita oraindik ere Austrian zegoenean, espia batzuek

zelatzen zutela, beren ideia politiko eta erlijiosoen aurkakoa zela baitzekiten. Austria atzean utzi eta Italiatik igaro zenean, Dollfuss hil zutenetako austriar alemaniar batek jarraitzen zion. Pertsona hori, geroago, Espainiako Gestapoko buru izendatu zuten. Orduetik ez zuten Gapp aita bistatik galtzen. Tiroleko austriar bat Valentzian izan zenean, Gappen lagun egin zen. Azken horrek aurreko pertsonaia maltzur haren zerbitzura egiten zuen lan.

Gapp aita Valentziatik atera zenean, ustezko lagunak bere autoan eraman zuen Donostia. Bertan, Gapp ezagutzen zuten ikasle batzuek ikusi zuten. Erreparazioko kapelara ere sartu zen; aurretik maiz eman izan zuen meza bertan. Lagunak Kontxako pasealekutatik paseatzera eraman zuen Gapp, non arestian aipatutako nagusiak nahita topatu zituen eta tiroldarrez hitz egiten hasi zen. Solasaldiaren amaieran kotxean Hendaia joatera gonbidatu zituen bi lagunak: muga igarotzeko erraztasun handia zuenez, sarritan joaten zela esanda.

Aitak ezetz esan zuen, nagusien baimena behar zuela eta. Lagunek hiru orduko paseoa baino ez zela izango azaldu zioten.

Gonbidapen adeitsuak ikusita, aitak baietz esan eta Frantziara abiatu ziren”.

Bertsio hori oso sinesgarria dela dirudi. Berlingo itaunketan hirugarren gizon bat zegoela baieztatu zen. “Monte Igueldo hotelean izan genuen hizketaldian, Tiroleko nire herrikide bati esan nion bere ezaguna zen soldadu alemaniar batek, Kluienschädel izenekoak...”.

## Berlin

1942ko azaroaren 9ko eguerdian, Donostiatik paseatzen ari zirela, Herman Tretter eta Gapp tiroldar batekin topatu ziren “ustekabeen”. Badakigu Gapp-pek Espainiako poliziarekin gestioak egin zituela. Mugan zegoen polizia espainiarrak bi lagunak ezagutzen zituen eta, dirudienez, aita ohartarazi zuen, baina hark ez zuen erreakzionatu. Baimena erregistratu eta atxilotu egin zuten. Berlinera eraman zuten, beharbada, trenean eta geldialdi asko eginez. Hainbat kartzelatan egon zen, bakartuta. Ez zituen idazten uzten, ezta non zegoen esaten ere. 1943ko urtarrilaren 25ean eta 27an, galdeketa luze bat egin zioten Reicharen Segurtasun Zerbitzuaren egoitzan (Sicherheitsdienst), Gestaporen menpe zegoena. Galdeketa aktak oso zehatzak dira, 30 orrialde trinko, non Gapp-pek bere ibilbidea azaltzen duen, bere fede katolikoa berresten duen, Eli-



zarekiko atxikipen hauskaitzari eusten dion eta akats nazionalsozialistak irmotasunez gaitzesten dituen. Fedeak eraginda jardun duela dio eta ez da bere pentsamoldea ezkututzen saiatzen. Aitzitik, kalte egin diezaioketen datuak eta baieztapenak eransten ditu. Lehengo garaietako martirien aktetatik ateratako galdeketa bat ematen du.

1943ko abuztuaren 13an, Gapp exekutatu zuten egunean, bi gutun labur idatzi zituen arratsaldeko lehenengo orduetan. Bata bere lagun eta konfidente izan zen Jung aitari, orduan marianisten buru gorena zenari, eta bestea bere odoleko familiari:

*“Iazko azaroaren 9an, Frantzian atxilotu ninduten, Berlinera eraman ninduten eta, azkenean, uztailearen 2an, hiltzera kondenatu naute, Jesusen Bihotzaren jaiegunean. Gaur betearaziko da sententzia. Arratsaldeko zazpitan, nire Salbatzaile maitearenera joango naiz. Suharki maite izan dut beti. Ez zaitezte nigatik penatu! Oso zoriontsua naiz. Jakina, une atsekabetsuak pasa behar izan ditut, baina neure burua heriotzarako ondo prestatu ahal izan dut”.*

1943ko urtarrilaren 25ean, lehenengo itaunketa jasan zuen. Karl Ludwig Neuhaus doktoreak itaundu zuen, Erich Roth aholkulariaren aurrean. Neuhaus Eliza protestanteko kidea zen. Prinz-Albrecht kaleko Gestaporen egoitzan Jakob Gapp akusatuari itaunketa egiteko enkargua jaso zuen. 44 urteko gizon hori Gapp beatifikatzeko prozesuko lekuko nagusia izango zen geroago, harremanetan izan ziren bi egunetan ezin ahaztuzko zirrara eragin zion Gappék gizon hari.

Beatifikaziorako adierazpenetan zera esan zuen Neuhausék: *“Aukera hau baliatu nahi nuke neure buruaz zerbait esateko. Atsegin handiz etorri naiz Vienara, adinean aurrera eginda egotea eta eguraldi txarra gorabehera. Etorri naiz nire testigantzak, nola edo hala, gauza batzuk konpontzeko eta merezi duen gizon honi justizia egiteko balio izan dezan”.*

Neuhaus funtzionarioa itaunketaren ardurduna zen. Gappék 76 egun zermatzan gatibu. Aktan jaso zen itaunketa bakarra da; ez dakigu aurretiaz galdeketa egin zioten. Gappék egia baino ez esatea zin egin zuen. Aberriari traizio egitea leporatu zioten. Hark, ordea, traidorea ez zela zioen, *“Jainkoak nahi duen moduan maitatzen dut nik herria”.* Adierazpenak ez ziren autodefentsakoak izan, nazionalsozialismoaren eta fede katolikoaren bateraezintasunari buruzko salaketa sutsua izan ziren. Ez zen beldur

Gestapok ezagutzen ez zituen egitateak kontatzeko, bere erruduntasuna larriagotu zutenak.


Urtarrilaren 27ko galdeketa, Valentziako lagunak nortzuk ziren konturatu zen Gapp. Arratsaldeko bostetan saioa amaitutzat eman zen.

***“Alemania indartsua izango litzateke, eta gerra irabaziko luke, Gappen moduko milioi bat gizon bagenitu, nazionalsozialistak baina”***

*Heinrich Himmler*

RotheK, aginduak betez, Gappen galdeketa aktak entregatu zizkion Himmleri. Arretaz irakurri zituen, eta, bukatu zuenean, txundituta, esan zuen: *“Alemania indartsua izango litzateke, eta gerra irabaziko luke, Gappen moduko milioi bat gizon bagenitu, nazionalsozialistak baina”.*

Martxoaren 6an Gapp gatibu mantentzeko agindua sinatu zuen RotheK, geroago Herriaren Auzitegiaren pean jartzeko. Betiko karguak leporatzen zizkieten: *“Frantziako eta Espainiako homilietan, entzuleek nazionalsozialismoarekiko gorrotoa eta nazka senti zezaten saiatzen zen. Alemania gorrotatzen zuen eta Alemaniaren aurkako albiste lazgarriak zabaltzen zituen. Leporatzen zizkieten gauza guztiak egia zirela aitortu zuen Gappék: hala egin zuen apaiz katoliko gisa ezin zuelako beste modu batean jokatu”.* Martxoaren 8an Turmstrasse, 91.eko Zigor Auzitegira eraman zuten eta aberriari traizio egiteaz akusatu zuten. Moabitoko kartzelara eraman zuten eta 6160/42 zenbakia esleitu zioten. Uztailearen 2an, goizeko 10:00etan, Herriaren Auzitegi-ko presidentearen aurrean azaldu zen, Roland Freisler doktorearen aurrean, hain zuzen. Bigarren epailearen lanak Rehsek, Auzitegi Goreneko kideak, egin zituen. Hager doktoreak fiskal lanak egin zituen. Gapp hiltzera kondenatu zuten. 11:40ean amaitutzat jo zen saioa. Freisleren eta Gappen arteko elkarrizketa irakurri: *“Freisler presidenteari bere burua Gapp akusatuari azalpenak ematera behartuta sentitzen dela dirudi. Gappék Freisler harritu zuen nonbait”.* Abokatu defendatzailea Herscher izan zen.



Abuztuaren 13an hitzordua zuten borroak eta Herscher abokatuak. Prentsan ezer argitaratzea debekatu zen eta gorpua Berlin-go Unibertsitateko Institutu Anatomiko Forentseari, eta ez familiari, bidaltzeko agindua eman zen. Ez zuten martiririk nahi. 1943ko abuztuaren 13an, arratsaldeko zazpitan, zigorra betearazi zen Plötzenseeko kartzelan. Lehenxeago bi gutunak idatzi zituen. Gero, gillotinez hil zuten, Kurth fiskalaren, Karpe justizia-funtzionarioaren eta Rösler kartzelainspektorearen aurrean.

1996ko azaroaren 24an, Joan Paulo II.ak Eliza katolikoaren martirologio ofizialean inskribatu zuen.

